HAL open science

# Bernard Lehete, Eustorg de Beaulieu eta Bernat Detxepare Errenazimenduko hiru gizon

Patri Urkizu

▶ To cite this version:

Patri Urkizu. Bernard Lehete, Eustorg de Beaulieu eta Bernat Detxepare Errenazimenduko hiru gizon. 20, Eusko Ikaskuntza - Société d'Etudes basques, pp.235-242, 2001. artxibo-00085052

HAL Id: artxibo-00085052

https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00085052v1

Submitted on 11 Jul 2006

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

## Bernard Lehete, Eustorg de Beaulieu eta Bernat Detxepare Errenazimenduko hiru gizon

Eugene Goyhenetche (1915-1989) euskal historialariaren heriotzetik hamartea iragana delarik, benetan egoki deritzot Eusko Ikaskuntzak hartu erabakiari, alegia, haren oroimena ez ahanzteari eta aitzakia horrekin zenbait ikerle biltzeari, bakoitzak bere esparruko gaiak elkarri ezagutaraziz.

Beti estimu eta balio handitan izan ditut Goyhenecheren ikertze eta zabaltze lanak, deitoratzen dudalarik soilik Bordelen aurkeztu zuen tesia, *Onomastique du Nord du Pays Basque (XIe - XVe siècles)* tamalez oraindik argitaragabe izana zenbait ohar *Onomasticon Vasconiae*[1] liburuan agerturik izan arren. Ohi zuen bezala, lehen eskuko dokumentazioa bertan plazaratuko liguke, noski, eta euskaren Erdi Aroko historiarako baliagarri gertatuko, inolako dudarik gabe.

Dena delarik, - eta espero dezagun ez dezan denbora luzez itzalpean iraun lan horrek -, hel diezaiogun, gure gaurko lantxoari. XVI. mendeko, alegia, errenazimenduko hiru gizon, jo ditut begiz, eta beren arteko harreman, lotura eta lanei buruzko zenbait gogoeta aurkeztera natorkizue.

Bernard Lehete, Eustorg de Beaulieu eta Bernard Detxepare.

Lehetetarrak, etxe noble bateko ziren, jada 1135. urtean Martin de Lehet ageri denez Nafarroako erregearen kontseiluko partaide gisara[2] Geroagokoak dira, noski, Bertrand de Lehet eta Auger de Lehet, Goyhenechek argitaratu[3] 1499ko agiri batean, Baiona eta Miarritzen arteko itun batean balearen eskubidezkoa zatia zela eta, azaltzen direnak, legetan lizentziatu eta batxiler hala nola Baionako eliza nagusiko kalonje bezala.

Ez dakigun arren gauza handirik Bernard Leheteren bizitzaz, egia esan, badakigu zertxobait bederen. Adibidez, Alfred Lassus-ek dioskunez[4] Sarako familia nobleetarik zela, oraindik bertako etxe eder batek izen bera daramalarik. M.A. Pegg-ek[5] emaniko ohar batez jakin, badakigu , berriz, 1514. urtean Tolosan, hau da Frantziako Toulouse-n, ikasten ari zela eta bertan *lecteur* -irakurle- gisa aritu zela 1516an. Urte batzuek geroxeago abokatu zela Guyenne-ko amiralgoan (1524-1529) eta abokatu jenerala legez lanean hasi zela 1529an, kargu berean jarraikiz 1560a arte, azken hatsa 1562an eman zuelarik Bordelen.

---

[1] Goyhenetche, E., 1991, "Notas sobre la Onomástica y la Historia Medieval de Iparralde", *Onomasticon Vasconiae.* Ed. E. E. Knörr & M. A. Libano, Euskaltzaindia, Bilbao, 292-305.

[2] Lamant-Duhart, H., 1997, *Armorial du Pays Basque*, 262.. .

[3] Goyhenetche, E., 1990, *Bayonne et la région Bayonnaise du XIIe au XVe siècle*. UPV, Bilbao,444 hur.

[4] J & D. Biarritz Lassus, A., 1993, "Les maison nobles, infançonnes autres de Sare et leurs occupants", in Jacques Antz et al., *Sare, Ekaina*, 179-211.

[5] Pegg, M.A. (ed.), 1964, *Eustorg de Beaulieu, Les Divers Rapports.* Genève. Droz. 239.

Suertatu zaigu ere bere autografo dotorea ikustea hala nola bere seme Joanesena Bordeleko herri liburutegian, eta bidenabar Girondako Artxiboetan[6] aurki daitezke beste zenbait albiste bere bizitzaz. Hala nola 1530.eko abuztuaren 22an hartu zuela bere lan kargua, aurrekoa, Thomas Cousinier Provence-ko Parlamentuko lehendakari bezala hautatua izan zelako[7]

Halaberetsu badakigu bere seme Joanesi utzi ziola kargua, 1554eko martxoaren 4ean, Fontainebleau-n sinatu agiriaren arabera, baina honek ezin izan zuela karguaz arduratu 1560a arte gaztetxo zelako oraindik. Halere, 1564an gure Bernard Laheteren semea Joanes prokuradore jenerala zen, eta eliza erreformatuko Guilloche kontseilariaren lehengusua. Hau dela eta katoliko zenbaitek salatu egin zuten [*Lettre contre Lahet*] haren jauregia erreformatu iraultzaileen babeslekua bilakatua zelako, eta istilu hanitz pairatu zituen kausa honengatik. dena den, Parisen hil zenean 1572an Bordeleko Parlamentu osoak parte hartu zuen hileta elizkizunetan, zeinek adierazten duen argi eta garbi zein estimu handitan zeukaten bordeleko hiritarrek gure Joanes[8].

Hemen interesatzen zaiguna, ordea, bere aita Bernard da, zeren honek bildu zituen, bederen, bi poeta handiren laudorioak. Bata Beñat Detxepare, lehen euskal liburu inprimatuaren egilearen partetik, eta bestea Eustorg de Beaulieu garaian poeta ospetsu zenaren aldetik.

Detxepare, 1533an Baionako *Statuta Synodiala* direlakoak egiten egon ondoren[9] honelaxe hasten du 1545ean, justuki, hain ezaguna den bere poema liburuaren eskaintza:

> *Erregueren advocatu videzco eta nobleari virtute eta hon guciez complituyari bere iaun eta iabe Bernard Leheteri bernard echeparecoac haren cerbitzari chipiac gogo honez gorayncy baque eta osagarri....*

Aurreraxeago euskalzaletzat jotzen du, noski , alegia, euskara ohoratu duela abokatu bordelesak, seguruen inprimatze baimena lortzeko bitartekari izanen baitzen, hitzokin:

> *Eta ceren oray çuc iauna noble eta naturazcoac beçala baytuçu estimatzen goratzen eta ohoratzen heuscara çuri neure iaun eta iabia beçala igorten darauritzut heuscarazco copla batzu...*

Eta bukaeraldean koplen helburua honelaxe agertzen digu:

> *...eta bascoec bercec beçala duten bere lengoagian scribuz cerbait doctrina eta plazer harceco solas eguiteco cantatzeco eta denbora igaraiteco materia...*[10]

Nabari denez, musikak eta kantak berekin dakarren plazera ere ez zegoen *coplac* idaztean egileak zituen helburuetarik at. Ez naiz honetaz gehiago mintzatuko aski baitira aritu ni baino lehenago hainbat eta hainbat kritikari, tartean Haritschelhar jauna bera.

Mintza nadin, beraz, Eustorg de Beaulieu, honek ez hitz lauz baizik bertsotan, aitzinago emango dugun ehun bertsolerroko poema eskaini zionez gure Bernard Laheteri.

---

[6] . *Archives Historiques du Departement de la Gironde.* Paris, Alphonse Picard et fils, 1901, Vol. xxx.

[7] *Archives de Gironde.* Registre d´enregistrement à Bernard de Lahet de l´office d´avocat général, vacant par la promotion de Thomas Cuisinier, à l´office du Parlement de Provence. Fond IB, 1287-1538, fol 158

[8] . *Archives Historiques de la Gironde*, XX, 1487-1567. Registre des enregistrements, n. 5, fol. 117v.

[9] Colombies, J., 1533, *Statuta Synodalia.* Baiona. BNP, coté, B. 27911.

[10] Detxepare, B., 1545, *Linguae Vasconum Primitiae*. Bordeaux, François Morpain.

Eustorg de Beaulieu, Beaulieu-sur-Ménoire-n jaio zen 1495ean. Bere ama Jeanne de Bosredon deitzen zen, eta umezurtz gelditu zen oso gazte, zaindari lanak bete behar zituenakdiru guztiak xahutu zizkiolarik. Bordeleko parlamentuaren aitzinean salatu zuen, bai abokatuari bai eta epaileei bertsoak zuzendu zizkielarik, 1529an justizia lortuz. Urte honetan plazaratu zuen Bordelen *Les gestes des solliciteurs* poema liburua[11], non apez bezala, *prestre*, ageri zaigun eta non tribunaletako hainbat jende kritikatzen dituen. Garai honetan Tulle-n bizi zelarik oso ospetsua zen teatrogileen artean bere ausardia eta literatur talentuak zirela eta,

zenbait antzerki idatzi zuelarik honako tituluak zutenak: *Histoire de l'enfant prodigue, Le murmure et fin de Choré, Dathan et Abiron...*

Esan bezala Lehetek babestu zuen, eta honen alaba Margaritaren maisu ere izan zen. Gero François de La Tour, Turenne-ko bizkontearen zerbitzura igaro zen, eta 1536an Lyon-era Charles d'Estaing-endako gomendiozko gutun batekin. Etxerik hoberenetan errezibitu zuten, Hélène de Gondi-ren irakasle izan zen eta Lyon-en 1537an *Divers rapportz, contenant plusieurs rondeaux, dixains et ballades* , argitaratu zuen[12], non amodiozko eta laudoriozko kantak ematen zituen, hala nola andere gorputzaren zazpi soin-armei buruzko bertsoak, askeegitzat jo zirenak.

Eliza erreformatuarekin harremanetan zen, eta beraz, bai Erasmoren ohoretan bai eta Margarita Nafarroakoren alde bertsoak idatzi zituen, eta Mélanchton-en lantxo bat itzuli zuen. !537ko maiatzaren lehenean Genève-n babestu zen, bertan urte bat emanez, ondoren Lausanne-ra teologia ikastera joan zelarik. 1540an Bernan zen, eta artzain hautatu zuten Thierrens, Vaud-eko lurraldean, bertan zazpi urtez biziz, eta bai polemika lanak bai kanta ezpiritualak idatziz, hala nola San Pabloren gutunak eta Psalmoak itzuliz. Garai honetan, hots, 1546. urtean plazaratu zuen *Chrestienne resjouissance*[13]. Titulu luzean dioen bezala, apez, musikari eta organistatzat jotzen zuen bere burua.

Liburu honetan 160 kantu ageri dira, zeinen hitzak eta musika sortzeaz harro sentitzen den. Halere Paul Meyer[14], kritikariak dioenez, ez ziren hain originalak, garaian modan zirenetik imitatu baitzituen bai bertsoak, - batzuetan hitzez-hitz kopiatuz,
bai eta doinuak. Zenbait kantatan aitasaindua, fraideak eta peregrinazioak kritikatzen ditu oso modu bizian. Eustorg Bâlen hil zen 1552eko urtarrilaren 8an.

Hona Eustorg de Beaulieu-k Bernard Leheteri eskainitako poema:

> *Jadis envoyée de par l'Aucteur à scientifique & Tres-prudent Seigneur, Monsieur Maistre Bernard de Lahet, Advocat du Roy en sa Court de Parlement à Bordeaulx.*

Combien que Craincte en t'escripvant s'avance
De m'appeller Fol, plain d'oultrecuydance,
Espoir me poulse & me dict: Tu fais mal
4 Si tu te craintz q'ung cueur Noble & Loyal,

[11] Beaulieu, E. de, 1529, *Les gestes des solliciteurs*.... Bordeaux.

[12] Eustorg de Beaulieu, 1540, *Les divers rapports contenantz plusieurs rondeaulx, dizains, ballades, chansons, epistres, blasons, epitaphes & aultres ioyeusetez*. Paris, Alain Lotrian.

[13] Eustorg de Beaulieu, 1546, *Chrestienne resjouissance composée par..., jadis prestre, musicien et organiste en la faulce église papiste et depuis, par la miséricorde de Dieu, ministre évangelique, en la vraie église de J. C.*

[14] Meyer, P., 1872-X-2, *Revue critique*.

Tant enrichi de vertus à souhait
Comme celuy de Bernard de Lahet,
Aye en desdain la teneur de ta lettre,
Quoy qu'elle soit en rude stile & metre;
Et (que plus est) qu'il soit en dignité
(Non sans merite) & grande auctorité,
Car ja pour ce ne t'en tiendra à mespris,
Et n'en seras aulcunement repris,
Joinct que les Biens,& les Honneurs du monde

N'ont rien changé ses meurs & sa faconde,
Et ne fut onq plus doulx & liberal
(Avant qu'il feust Advocat general)
Que maintenant, sellon ceulx qui le hantent,
Et à toute heure au pres de lui frequentent.
Or ce voyant, j'ay dict à Crainete & Peur
Qu'en despit d'eulx je prendrois le labeur
D´ung mot t'escripre en lourde Rymasseure,
Voyant que Espoir (que maintz nourrit) m'asseure,
le suppliant pardonner (toutesfois)
Ma folle audace, au moins pour ceste fois,
Combien que croy que trop ingrat seroye
S'à tout le moins ce coup ne t'escripvoye,
Veu les proffitz, les biens & les honneurs
Que j'ay receupz de toy en lieux plusieurs,
Sans que jamais te feisse aulcuns services
Dignes en rien de tant de benefices;
Entre lesquelz j'ose bien reciter
Que je t'ay veu pour moy solliciter
Et'veoir mon sac, Puis en faire sermon
Au bon seigneur Monsieur de sainct Symon
Qu'en mon proces lut commis Rapporteur,
Dont (grace a Dieu) j'euz par son rapport heur,
Car me garda sans faveur ne malice
Tresbien mon Droict en forme de Justice.
Mais les Raisons de droict que tu me feiz,
A sçavoir mon si j'en feiz mes proffitz:
Je te prometz que ouy, tant que de choses
Ne d'aultre piece en mon dict Sac enclose;
Et y parut, dont j'en mercie Dieu,
Qui me guida te trouver en ce lieu.
Tant d'aultres Biens j'euz par ton acointance,
Et de Faveur, que je n'auroys puissance
Le desservir de cent ans ne de plus,
Mais Dieu (qui peult) parfaira le surplus.
Je pense fort si ton cueur se delecte
(Comme j'ay veu) au Jeu de l'Espinete ?
Et s'aymes tant le doulx bruyt Organique
Comme aultres fois, & la doulce Musique
Où je t'ay veu prendre tant de plaisir

Que bien souvent, ains que t'aller gesir
(Pour de soucy & peyne estre delivre),
Si tu trouvois de Musique aulcung Livre,
Toy, Blaise, & moy, chantions jusque à my nuyct,
Sçachant que Dueil ne proffite mais nuict?
Et, pour plus estre à la Musique enclin,
Tu t´aconctoys de Clement Jennequin
Et d´aultres maintz, toutz gens d´experience,
Et où gisoit Musicalle science.

C'estoit en l'An mil cinq cens vingt & neuf,
Q'ung pain d'ung liard n'estoit plus gros q'ung ceuf;
Voire ne fut cent ans avant Cherté
Telle que alors, ne si grand Paovreté.
Ce non obstant, à tes Coustz & Despens
u tins Maison ouverte à plusieurs Gens.
J´en suis Tesmoing qui ne le puis nyer;
Pareillement maistre François Cornier
Et maistre  Aubert du Pré, aussi la Chausse
Et aultres maintz ayant part à la Saulse.
Je Ry souvent lors que je considere
Le passetemps que tu euz d'ung petit Heere
Que j'achaptay pour de ça m'en venir,
Du quel ung jour (s'il t'en veult souvenir)
Je euz belle peur à cause d'une Bulle
Ou d'ung Papier en forme de Cedulle
Que quelque Gueux vint à ton huys poser,
En declairant qu'il venoit se opposer
A mon marché & achapt du dict Heere,
Lequel Rapport, certes, ne me pleust guere,
Et feuz long temps (comme sqais) sans respit,
Fantasié & tout plain de despit.
Mais peu apres le Cueur si me alla dire
Que ce n'estoit q'ung marché faict pour rire,
Et que à tes gens (pendant nostre Repas)
L'avoys chargé pour retarder mes Pas,
En me monstrant que encore ma presence
Ne te faschoit, ne cheuz toy ma despence.
Noble Seigneur, pour resolution,
Par cest escript te fais relation
Que pour affin que Ennuy de moy reculle.
Suis à present en la ville de Tulle'
Tu la cognois, Pour ce n'en dy rien plus,
Te suppliant que je ne soye exclus
De ta memoire, encore que ne ays veu signe
(En mon endroit) dont de ce je soys digne;
Et me commande en toutz lieux ton vouloir,
Car de ce faire as sur moy le pouvoir.

Aski adierazgarriak direla uste dut ehun bertsolerro hauek, zeren ikusten ditugun Bernard, Eustorg eta Blaise delako bat (nor ote?) bildurik eta gauerdiraino kantatzen: *Toy, Blaise & moy, chantions jusque à my nuict* (57.bl.).

**Clément Jennequin** (Châtellerault 1485 ing. - Paris, 1558), musikaria, François de Gondi, Lorraine-ko kardinalaren eta François de Guise-ko jaunek babestua, hala nola Henri II.aren konpositorea. 1505az geroztik Bordelen ageri da Lancelot du Fau, Parlamentuko lehendakari eta 1515az gero Luçon-go apezpiku izango zenaren inguruan. 1523an Jean de Foix, Bordeleko artzapezpikuak babestu zuen eta 1525ean Saint Emilion-en Fronde-ko kalonje izanen da. Bere obra nagusia hiru, lau eta bost ahotsetara diren berrehun eta hirurogeita hamabost

kantek osatzen dute. 1520an dagoeneko ospetsu eta musika profanoan maisu, jenero guztiak landu zituen, lirikoa, narraziozkoa, erotikoa, teatrala... bere kantak eskuzkribuz-eskuzkribu zabaltzen zirelarik Europan barrena, batipat 1528an moldiztegiratu *La Guerre* obraren ondoren. Bere liburu famatuenen artean aurki daitezke: *Chansons* (1528), *Verger de musique* (1559)...(sic).

Beraz,musikari handi hau lagun zutela. Nabarmen da, Bernard Laheteren etxea, mende bat geroago Bertrand d'Etxauzena bezalaxe artisten babesleku izan zela. *Tu tins Maison ouverte à plusieurs Gens* (68. bl.), dio zehazki laudoriozko koplak, aipatuz François Cornier eta Aubert du Pré maisuak.

Kantatuko ote zituen Bernard Lehetek bere Bordeleko jauregian euskal kantak Beñat Detxepareren konpainian? Neretzat ez dago dudarik baietz, zeren baitirudien Lehetek, Cornier, Bordeleko parlamentuan prokuradore zenak eta du Pré-k lagun talde eder bat osatzen zutela, Musikazale amorratua zena, eta zeinekin, antza denez gure lehen poetak noizpait parte hartuko zuen, zalantzarik gabe. Guzti hauek eta beste zenbaitek osatuko zutekeen, ziuraski, Bordeleko talde humanista eta errenazentista, tamalez gutxi ezagutzen duguna, eta zeinen artean Clément Marot-en[15] eragina nabarmena den.

Ez litzateke noski gure poetaren koplen iturriak eta nondikakoak, poetikotasun bideak aztertzeko ikerketa lerro galdua Bordeleko errenazimendu garaia zertxobait gehiago arakatzea. Guk hemen urrats bat besterik ez dugu eman, eta hurrengo lanek agian baieztatuko dutelakoan iritzi hau, hemen amaitzen dut solas labur hau.

[15] Guy, H., 1968, *Clément Marot et son école. Histoire de la poésie française au XVIe siècle*. Paris, Champion.

**Axularren garaiko sermoi argitaragabe bat: *Erunt signa in sole, et luna, et stellis . l. 21., Goure ginco omnipotantac...* Aurkezpena, oharrak eta transkripzioa.**

*Justitia et pax osculatae sunt* (Ps.84)

***JUSTIZIAK** eta bakeak elkarri pot eman diote*, halaxe dio Salmistak, eta egungo mundu egoeraren aurrean horixe bera desiatuz hasiera eman nahi nioke hemen ene saio xume honi. Alegia, zubereraz idatzirik dagoen eta Axularren garaikotzat jotzen dudan hitz horiek beraxek darabiltzan sermoi baten aurkezpenari.

Hala bada, hau hemen agertzearekin batera ohar batzuk nahi nituzke eman euskal sermoigintzaren inguruan baliagarri gerta daitezkeelakoan, bai euskal literatur erlijiosoaren, bai euskal erretorikaren bai eta euskararen historiarako.

Jakin, badakigu Goi Erdi Aroan Karlomagno enperadoreak "Capitulares" edo Buruxkak dei ditzakegun agirietan predikuak herriak konprenitzeko eran egitea gomendatzen zuela[16], hau da, herriaren hizkuntzan egitea, eta Erdi Aroan sermoi guztiak, latinez idatziak zirenak barne, Frantzian batik-bat frantsesez ematen zirela, bakarrik apezgoari zuzenduak eginik latinez.

Baina zenbait lurraldetan beste hizkuntzarik ere mintzatzen baitzen, ezagunak dira, adibidez, okzitanierazko sermoiak, eta Geneviève Hasenohr-ek dioskunez[17], ageri direnak garaiko hizkuntza lekukorik zuzenenak bezala, ohikoa zelarik beste lekutan bezala sermoi bildumak egitea urte guziko elizkizunetan erabil zitzaten. Ez da harritzeko ikustea, beraz, XV. mendearen erdialdean inprimategia sortu zenez geroztik, kontutan hartzen badugu Eliza Katolikoak predikuari ematen zion garrantzia, *Artes praedicandi...* delakoak moldiztegiratuak, eta erretorikaren historia liburuetan[18] gaia ukitzen duten ehunka titulu irakur daitezke XVI-XVII. mendeetan argitaratuak. Adibidez, Erdi Aroan eta geroago ere ospetsua izango zen Alain de Lille deitu teologo eta Pariseko Unibertsitatean errektore izan zenak (Lille, - Cîteaux, 1203) *Summa de arte praedicatoria* idatzi zuen[19], egile ezezagun batek *Tractatus de modo discendi ... seu de modo praedicandi*[20] bat plazaratu Leipzig-en XV. mende bukaeran, eta Etienne Hoert jaunak[21] Strasbourg-en 1513an beste *Modus praedicandi...* bat moldiztegiratu zuen.

Liburu hauek, noski, aski arrakastatsuak eta garaiari egokituak izaten ohi ziren, eta horien bitartez azter dezakegu nolako erretorika zerabilten apezek beren sermoietan, eta garaia ezagutzeko ere baliagarri gerta dakizkiguke, Louis Mourin-ek[22] Jean Gerson (Gerson, 1363 - Lyon, 1429) teologo eta predikariaren sermoiak aztertuz erakusten digun bezala. Hots, zerabiltzaten aipamen, errefrau eta *exempla*-k, alegia, ixtorioak garaiko pentsamoldeen, burutazioen berri eman diezaguketela beste literatur testuak baino areago.

---

311 Albert Lecoy de la Marche, *La chaire française au Moyen Âge*. Slatkine reprints, Genève, 1974, 235 urr.

17 Geneviève Hasenohr, "La prédication aux fidèles dans la première moitié du XIIe siècle. L'enseignement des "sermons limousins", *Romania*, T. 116, Paris, 1998, 34-72.

18 José Antonio Hernández Guerrero & M0 del Carmen García Tejera, *Historia Breve de la Retórica*. Ed. Sintesis, Madrid, 1994.

19 Migne, T. 210, col. 110-198.

20 An., *Tractatus de modo discendi et docendi ad populum sacra seu de modo praedicandi*. Martinus Herbipolensis. Leipzig, s. XV.

21 Etienne Hoert, *Modus praedicandi subtilis et compendiosus*. Strasbourg, 1513.

22 Louis Mourin, *Six sermons français inédits de jean gerson. Étude doctrinale et littéraire suivi de l'édition critique et de remarques linguistiques*. Paris. J. Urin, 1946.

Erlijio ordenen artean, Jesuiten presentzia eta arrakasta XVI-XVII. mendeetan izaugarria izan zen, noski, hala irakaskintzan nola predikazioan, batipat bere *Ratio studiorum* delakoa zela medio, zeinek Humanitateen estudioari garrantzi handia ematen baitzion eta hauen artean bereziki Erretorikari, zientziarik nobleena bezala. Ondorioz beren eragina predikazioan ere handia izan zen. Eta bidenabar idatzi zituzten oratoriaz liburu aski, adibidez, Bartolome Bravok *De arte oratoria*[23] ospetsua plazaratu zuen eta Aita Reggiok *Orator Christianus* ezaguna.

Gure esparrura, hau da Euskal Herrira gatozelarik, eta zehazkiago Axularren garaiko sermoigintza aztertzera, ez dago dudarik honek garrantzi izugarria izan zuela Trentoko Kontzilioaren ondoren, apezpikuen sinodalek adierazten diguten bezala herriaren heziketa katolikoan ezinbestekotzat jotzen baitzen.

Jakin, badakigu nola Baigorrin sortu zen Bertrand d'Etchauzek (1557-1645), Henri IV.aren kontseilari eta kapellauak eta geroago Baionako apezpikuak, Axularren babesle izan zenak, zioetenez, kortesau baten hizkeraz areago mintzo zena apezpiku hizkeraz baino, Baiona utzi eta Tours-era joatea eskatu zuelarik, hiri honetan katedrala izugarri dotoretzeaz eta apaintzeaz gain *Maison de l'Oratoire* delakoa sortu zuela.

Ezaguna da bestalde, Axularrek berak lehenik fama eta ospea predikari moduan izan zuela Henri IV.aren gutun batean nabarmentzen den bezala, *il a presché la parolle de Dieu au gré et contentement de l'evesque et gens de bien du dit pays*[24], alegia, Jainkoaren hitza hedatu duela apezpikuaren gogo eta kontentamenduaren arabera hala nola aipatu herriko jende onen gustora. Halaber, 1611. urtean badakigu Lancre eta sorginkeriaren arazo triste haren ondoren, non zapirehun pertsonak baino gehiago bizia galdu zuten, zenbait apaiz barne, egoera baretzeko erreginak predikari onak euskaldunei bidaltzea zela erabaki zuela eta hauek aurkitzea Aita Coton jesuitaren esku utzi zuela[25].

Axular ez ezik izan ziren beste euskal predikari ospetsuak hamazazpigarren mende honetan, eta beste anitzen artean hauexek leudeke: **Soccarro** delako bat, **Joanes Haramburu** saratarra, *Debocino escuarra, mirailla eta oracinoteguia...* (Bordele, 1635) liburuaren egile frantziskotarra predikari gisa aipatua, **Bernard Gasteluzar** ziburutarra jesuita, predikari Baionan 1656an, baina jansenisten harrera gaitzaren aitzinean Oloron aldera joan zena eta hemengo apezpiku Maitye jaunarekin 1672an Zuberoa osoari bisita egin ziona[26] eta *Eguia Catholicac...* bertso liburuaren egilea (1686). Zuberotarren artean baziren Hugues Dedieu-k[27] esaten digunez hainbat predikari frantziskotar euskaldun, hala nola, Nikolas ozaztarra Maulen 1680an hila, Basile ozaztarra hau ere, Akizen 1693an hila, Frantzisko delako bat, mauletarra eta idazlea, erlijio liburu bat idazteaz gain, inprimategiko berrikuntzaz idatzitakoa[28] edota Jose-Maria mauletarra eta Baionan 1719an hila.

---

[23] *De arte oratoria, ac de eiusdem exercendae ratione Tullianaque imitatione, varia ad res singulas adhibita exemplorum copia libri quinque.* Auctore Bartholomaeo Bravo è Societate Iesu. MDXCVI.

[25] Luis Villasante, 1972,*Axular. Mendea. Gizona. Liburua.* Jakin, Oñate, 74.

[26] Athanase Belapeyre, "Itininéraire très detaillé de la visite de M. de Maytie en Soule en 1672",*Etudes religieuses de la diocèse de Bayonne.* 1900.

[27] Hugues Dedieu, "Franciscains et Capucins originaires des provinces basques de Labourd, Basse-Navarre et Soule. Essai de répertoire chronologique (XVVe siècle - début XXe siècle)", *Bulletin du Musée Basque*, n1 81-82, 1978, 109-182.

[28] François de Mauléon, *Méthodes: pour bien faire la confession générale, pour bien prier et faire oraison, pour catéchiser les ignorants, pour persévérer dans la grâce de Dieu.*

- -, *L'esprit de l'orthographe universelle, contenant la réunion de toutes les langues par un seul caractère.* Paris, Antoine Chrétien, 1693.

Eta iparraldekoez soilik ez mintzatzearren Solarte, zeinek Donostian 1621an igande arratsaldetan denen probetxu eta gusto handiz predikatzen omen zuen euskaraz, eta, hain zuzen, 1628ko Garizuma iristean jesuiten eleiza igande arratsaldetan hainbeste jendetzaz betetzen zen non denak bertan sartu ezinik eskatu zuten Santa Mariako elizan jarraikitzea sermoiekin, egin omen zena denen arimen probetxu handiz[29]. Baina prediku luzeak zirenean, Zuberoan bederen, Belapeyrek[30] zioen bezala, jende xumeari loakarrazteko gehiago balio zioten misterioak konpreniarazteko baino:

> predicu lucez baino ihikiago eta hobeki, çoin genté chehec ençun beçain sarri ahazten baitutié, ceren bortu arté hoyetan gouré Laborari eta Cabaleçain gachoac lanez akhituric, hen espiritiac hain sortha eta lamputs guerthatcen baitira, non hoboroetan Predicu handiec eliçan lehen loeraziten baitutie eciz iratçartcen misterio barnen hartceco.

Ingurune honetan bada beharko genuke kokatu ondoren aipatuko dugun eta aztertzera goazen sermoia.

Eskuzkribuak 22 zentimetroko hiru folio betetzen ditu bi aldetatik idatzirik, eta Koldo Mitxelena Kultur uneko Urkixo fondoan 6654 zenbakia darama , eta honako hitzak ditu karpetatxoak, *MS que me regaló Jean de Jaurgain*[31]. Hizkia irakurtzeko aski zaila zuenez horrelako idazkiekin ohiturik dauden paleografia irakasleengana jo nuen, hain zuzen, José Manuel Fradejas eta Blas Casado UNED-eko doktoreengana. Lehenak esan zidanez, XVI. mende erdialdeko testuak arakatzen ibili berria zelarik Iruñean hizki aski berdintsua topatu omen zuen. Bigarrenak XVI. mende bukaerako edo XVII. mende hasierakoa zitekeela. Bestalde, Jean Baptiste Orpustan, erdi aroko testuetan aditua den irakasle jaunari ere kontsulta egin nion, eta honek Axularren garaikotzat eman zitekeela adierazi zidan.

Egia esan niri, paleografian adiatua ez naizelarik, testuak lanak eman dizkit irakurtzeak eta transkribitzeak, eta ez nago batere ziur irakurketa beti zuzena egin dudanik. Dena den, hurrengo irakurleei zertxobait bidea erraztu diedalakoan nago. Nere uste apalez grafiak eta hizkera azterturik Bertrand Zalgizekoaren edota Ivan Tartasenarekin antza gehiago dauka testuak Athanase Belapeyreren idatziekin baino, hau da mende hasieratik edo erditsutik hurbilago legokeelakoan nago mende bukaeratik baino, eta aski urrun gelditzen da bai estiloz bai eta hizkeraz Francisco Ondarrak[32] argitaratu 1729ko euskaraz idatzitako lehen sermoi nafarretik.

XVI. mendean Leizarragak ete bere laguntzaileek itzulpenetan grafia sistema guztiz koerente bat sortu zuten, baina erlijio gerren ondorioz ez zuen arrakasta gehiegirik ukan, tamalez. XVII. mende hasieran Materrek lanak izango ditu Saran ikasi zuen euskara konbentzio logikoz islatzea, Axular bera sortu zen aniztasunaren oihartzun egingo delarik. Dena den

---

[29] J. L. Malaxetxebarria, "Gotzain Jaunaren Aginduatzaz", *Jesus'en Biotzaren Deia,* Donostia, 1924, 84, n.2.

[30] Athanase Belapeyre, *Catechima Laburra eta Jesus-Christ goure ginco jaunaren eçagutçia, salvatu içateco.* (1696) Ed. kritikoa, J. L. Davant. Euskaltzaindia, Bilbao, 1983,

[31] Jean de Jaurgain, (Ozaze, 1842 - Ziburu, 1920), kazetari, historialari eta literatur kritikari. Karlistadetan parisko aldizkari baterako idazten zuen bitartean Iruñeko artxiboak miatu zituen. Hainbat liburren egilea da: *Arnaud d'Oihenart et sa famille*, 1885, *La Vasconie: étude historique et critique,* 1886; *L'évêché de Bayonne et la légende de Saint-Léon*, 1917...

[32] Francisco Ondarra, "Primer sermón en vascuence navarro (1729)", *Fontes Linguae Vasconum*, n1 38, 1981, 147-175.

Oihenart hartu beharko genuke ortografi arauemaile aitzindari gisa, atsotitzei eta neurtitzei ezarri "De l'Orthographe Basque" deitu oharretan, ez du, ordea, gure sermoilariak ohar horiek.

Tartasek bezala /u / eta /ü / fonemak adierazteko < ou > digrama eta < u > grafemak erabiliko ditu, hala: *goure, gincoua, ourte, celuco, paradussu, çuhur...*Badu hitz bukaeretan bokala ixteko jaidura, Detxepare eta Oihenartek bezala hala, adibidez kasu hauetan:

- e + -a > -ia : *beccatoriac, indignationiac, nombrian, bercia...*
- e + -e > -ie : *dutielaric, ...*
- u + -a > -ia : *mundiaren, paradussia, santificatia, ...*
- u + -e- > -ie- : *cien, santien, ...*

Leherkari belare hasperendunari dagokionez, hots, /k/ fonemaren aldaerari buruz adierazi behar dugu gertuago dagoela Detxeparengandik Tartasengandik baino, adibidez, kasu honetan:

< cc > : *beccatore guira eta mira eztaquigula* ( Detxepare, XIII, 25)
*beccatoria cer eguinen duc* (Sermoia, f.3v )
< kh > : *bekhatoria eta bekhatoressa cier mintço niz* (Tartas, 12)

Halaber - **ki** duten adberbioetan ematen ohi da berdintasun handiagoa Detxeparerekin Belapeyrerekin baino:

< qu > : *salvatuyac ieyncoarequi bethi alegueraqui* (Detxepare, I, 374)
: *rigourousqui gastigatceco* (Sermoia, f. 3r)
< k > : *perestuki biciric ere* (Belapeyre, Hitzaurrea)

Ez dago, noski grafietan koerentzia osoa grafietan, gure irakurketan bedere honako hitz beraren aldaerak ateratzen baitzaizkigu : *erho* (f. 1r, l. 16) eta *ero* (f.1r, l. 32); *berhalla* (f. 1v, l. 71) eta *berehalla* ( f. 2r, l.1), *geischi* (f.2v, l. 155) eta *geissy* (f. 2v, l. 134)...

<r-> , hots, dardarkariak aurki daitezke hitz hasieran inolako bokal eransketarik gabe, adibidez: *representatcen* (f. 1r, l. 27), *revoltatcen* (f. 1v, l. 47), *ruinala* (f. 1r, l. 14)...

Eredu latinoaren eta frantsesaren eraginak, beraz, ageri zaizkigu nabarmenki hurrengo etsenpluetan bezala: *scriptura* (f. 1r, l. 15), *spiritu (psalmistak* (f. 1v, l. 43), *mysterio* (f. 1r, l. 23), *Zacharie* (f.1v, l. 59), *San Hyeroni...* (f. 1r, l. 19), *St. Augustic* (f. 1v, l. 75)...

Morfologiari dagokionez azpimarratzeko da deklinabideko ( *-eri, -ganik, -la, -tarik, ...*) bereizgarriez kanpo , ageri den *'ore'* izen-lagun genitiboa ( *impossible içanen ceic ore beccatien gordatcea,* f.3v, l. 206) zein Maisterrengan eta Beñat Mardoren kopletan *'hire'* bilakaturik den. halaber, *dreicu* eta *dreiquie* aldaerek pentsatzera garamatzate XVII. mende hasierakoa daitekeela testua.

**HIZTEGIA**

ABERE
- aberen (f. 2v, l. 122)
ADAN
- Adam (f. 3v, l. 196)
ADBERTITU
- advertitcen (f. 1r, l. 13)
AFEKZIONE
- affektionen (f. 1r, l. 26)
AGERTU
- aguertu (f. 1r, l. 5)
AGRADABLE
- agradablea (f. 2v, l. 151)
AHAL
- ahal (f. 3r, l. 189)
AINITZ
- ainistz (f. 1r, l. 4)
AINGURU
- ainguriez (f. 1v, l. 76)
AITORTU
- aitortcera (f. 2r, l. 97)
AITZIN
- aitcinian (f. 3v, l. 205)
AKABI
- acabiez (f. 2v, l. 122)
AKZIONE
- actioneren (f. 1v, l. 49)

ALARMA
- alarmatan (f. 1r, l. 13)
ALDE
- alde (f. 1r, l. 13)
ALTXATU
- altchatu (f. 1v, l. 44)
AMA
- ama (f. 2v, l. 119)
AMUREKATIK
- amourecatic (f. 2r, l. 80)
ANDRE DENA MARIA
- andre dena Mariaz (f. 2v, l. 154)
ANIMAL
- animal (f. 2r, l. 108)
APREHENDITU
- aprehenditcen (f. 1v, l. 44)
ARAUZ
- araus (f. 3v, l. 220)
ARGI
- arguia (f. 1v, l. 74)
ARGIZAGI
- arguiçaguia (f. 1r, l.4)
ARIMA
- arima (f. 2r, l. 94)
ARRASU
- arrasou (f. 1v, l. 40)
ARREBA
- arreba (f. 2v, l. 148)
ARTE
- artian (f. 1v, l. 53)
ASOZIAZIONE
- associacionebat (f. 2v, l. 148)
ASTRE
- astre (f. 3r, l. 174)
ATRAPARAZI
- attraparacitcen (f. 2r, l. 101)
AUGUSTI
- St. Augustic (f. 1v, l. 75)
AZALI
- açalia (f. 2v, l. 131)
AZKARKI
- ascarqui (f. 1r, l. 16)
AZKEN
- asquen ( f. 1r, l. 21)

BADA
- bada (f. 2v, l. 148)
BAIZIK
- baici (f. 2r, l. 88)

BALANTZA
- balantçan (f. 1v, l. 42)
BALE
- valian (f. f. 3r, l. 192)
BALIATU
- balia eneçaçun (f. 3v, l. 220)
BAT
- batez (f. 1r, l. 12)
BEGI
- beguiac (f. 1v, l. 61)
BEGIRAZALE
- beguiraçaliac (f. 2v, l. 144)
BEGITARTE
- beguitarte (f. 1v, l. 61)
BEHAR
- behar (f. 1r, l. 21)
BEIRE
- beyrebat houragatic (f. 3v, l. 231)
BEKHATORE
- beccatoriac (f. 1r, l. 22)
BEKHATU
- beccatiac (f. 1r, l. 7)
BELDUR
- beldurrequi (f. 1v, l. 68)
BELSTU
- belsturen (f. 1r, l. 11)
BENA
- bena (f. 1r, l. 31)
BENGATU
- vengatcea (f. 1r, l. 3)
